

Bigarren urratsa: prozeduraren azalpena

1. BEHAKETA ARIKETA. Bisita gidatua.

Klubeko “tourra” edo bisita gidatua egitean, klubeko kideek eta, zehazki zuzendaritza taldeak zein nolako giroa eta atmosfera eta zein nolako esperientzia (sentsorialak) sortzen saiatzen diren aztertu nahi izan dugu. Zein giro sortu nahi dute klubean eta nola edo zeren bidez lortzen dute atmosfera edo giro hori? Ondoren, “hizkuntzaren auzia” asmo eta helburu horietan nola txertatzen eta uztartzen den ikusi nahi izan dugu.

Helburu hauek betetzeko asmoz, jarraian zehazten den prozedura diseinatu eta gauzatu dugu.

Lehenengo urratsa bisita gidatu bat antolatzea eta grabatzea izan da (Pink eta Leder 2012) klub bateko egunerokotasuna nolako den ohartzeko. Grabazioa gainera abiapuntua izan da antzemateko zein egitura, prozesu, gauza eta pertsonak osatzen duten kluba, eta aldi berean, zein esperientzia biltzen diren (kluba) “egite” edo “osatze” horretan. Testuinguratzeko hau lehenengo urratsa izan da aztertzeko eta ulertzeko euskarak klubean duen papera.

Hiztunok ez dugu hizkuntza erabiltzen “per se”, era isolatuan, helbururik gabe. Hizkuntza bat erabiltzen dugu hizkuntza horrek sortzen duen edo bultzatzen duenagatik: agurrak, aginduak, azalpenak, aitorpenak, etabar. Hizkuntza bat, eta oro har, komunikazioa prozesu eta helburu batzuk lortzeko modua/bidea/praktika da, eta neurri handi batean, horrek ematen dio zentzua hizkuntzari. Hori dela eta, gure kasuan euskararen erabilpena hizkuntzari zentzua ematen dion (praktika) “horrekin” lotu nahi izan dugu. Sarah Pink eta Kerstin Leder Mackleyk (2012) - Harold Wilhiten hitzak harturik- etxeko energiaren kontsumoa aztertzean esaten diguten moduan: “people do not consume energy per se, but rather the things energy makes possible, such a light, clean clothes, travel, refrigeration and so on” (Wilhiten 2005, 2 in Pink eta Leder 2012).

Aurrekoak euskararen erabilera modu konplexu batean ulertzea ematen gaitu, erabilera, praktikak, ohiturak eta errutinak nahaspilatutako jarduna izanik. Amarauna honetan gertatzen da praktikan hizkuntz erabilera.

Oinarrizko ideiei hauetatik abiatuta, hauek izan ziren bisita gidatua aurrera eramateko helburuak:

- Klubaren testuingurua ezagutu. Klubaren testuinguru hurbila ezagutu eta kokatu: auzoa, herria, hiria... zein testuinguruan kokatzen da kluba? Zein harreman gauzatzen dira kluba eta testuinguru hurbila? Nola gauzatzen dira lotura horiek? Zeren baitan?
- Klubaren espazioa (etxea) ezagutu: zein espazioetan gauzatzen da kluba? Zein espazioetan esperimendatzen da kluba? Nolako espazioak dira? Zein ezaugarriak dituzte? Espazio bakoitza zeinentzat? zertarako?
- Kluba edo "etxearen" egitura, kudeaketa eta sostenga (finantziarioa): zein egitura du klubak? kudeaketa eta finantziarioari dagokionez, zerk suposatzen du klub bat aurrera eramatea? Zerk sostengatzen du kluba? Zein da (kudeaketa eta finantziarioari dagokienez) errealitatea (ikusten dena eta ikusten ez dena)?
- Zer egiten du klubak jendea "bertakoa" (espazio horretakoa) sentitzeko? Zer egiten du kluba bere kideak "ondo eta eroso" sentitzeko? Zein baliabide, estrategia, moduak erabiltzen dira jendea klubaren parte sentitzeko?
- Eta azkenik: zein papera du euskarak edota hizkuntz kudeaketak helburu/egin behar horretan?

2. ELKARRIZKETA SAKONA. Bisita gidatuan sakonduz.

Lehenengo bisita gidatua egin eta gero ikerlari bakoitzak lortutako materiala landu zuen eta bigarren zita bat eskatu zuen. Bilera horri begira, gidoi bat prestatu zen bertan, besteak beste, horrelako gaiak txertatu zirelarik¹:

1.- Klubaren testuinguru hurbila: deskribatu eta azaldu.

- 1.1.- Klubaren kokapena: zein nolako gunea, auzoa, herria.
- 1.2.- Kluba eta testuinguru hurbilaren arteko harremanak: zertan eta nola gauzatzen dira?

2.- Klubaren eraketa/osaketa (espazioaren bidez).

- 2.1.- Objektuak (gauzak): objektuak non, zertarako, zeinen eskura...
- 2.2.- Pertsonak: non, nola kokatzen dira?
- 2.3.- Prozesuak: mugimenduak, nondik norako bideak...

3.- Klubaren kudeaketa eta sostengua.

- 3.1.- Nola sostengatzen da kluba? Zein egitura du klubak? Zerk sostengatzen du kluba?

¹ Gidoian modu esplizitoan agertzen ez bada ere, hizkuntzaren gaia (euskara) zehar lerroa izango litzateke, eta horren gaineko hausnarketa bultzatu dugu gai ezberdinak lantzerakoan.

3.2.- Nola ikusten/ulertzen da zuzendaritza kanpotik? Eta barrutik (zuzendaritzako kide izanik)?

3.3.- Finantziarioa: baliabide eta diru iturri ezberdinak. Bestelako laguntzak. Arlo honetan izandako garapena eta egungo egoera.

4.- Kluba esperimentatu.

4.1.- Praktikak: nola egiten gara klub batekoa (kirolaria banaiz, entrenatzailea banaiz, gurasoa banaiz, zuzendaritza taldekoa banaiz...).

4.2.- Klubekoa egite horretan: Nola gauzatzen da klubekoa izate hori? Zer bilatzen da? Zein nola esperientzia(k) bultzatzen dira edo bultzatu nahi dira? Zein helburu daude honekin lotuta? Nola lantzen dira helburua hauek?